




Partenoia ez du denborak desegin



**NAGORE
IRAZUSTABARRENA
URANGA**

Atenas, K.a. 448-432. Akropoliaren gailurrean Iktinos, Kalikrates eta Fidias arkitektoek diseinaturako tenplua eraiki zuten, Atena Partenos jainkotsari eskainia. K.o. VI. mendean, Partenoia eliza kristau gisa erabiltzen hasi ziren. 1456an otomandarrek greziar tenplua meskita bihurtu zuten, eta albo batean minarete bat erantsi zioten, handik otoi-terako deia egiteko. Bi milurtekoz erlijioek nahiko ondo tratatu zuten eraikina. Baina handik mende gutxira, hain zuzen, erlijio gerrek eragingo zuten Partenoia sekula izan duen kalterik handiena.

1683 eta 1699 urteen artean austriarrak, poloniarak, errusiarak eta veneziarrak otomandarren aurka aritu ziren. Morea konkistatu ondoren, veneziarrek Atenas hartu nahi izan zuten eta musulmanak bolborategi gisa erabiltzen ari ziren Partenoia inguratu zuten. Otomandarrek uste zuten tenpluaren barruan seguru zeudela, inork ez zuelako munduko monumenturik garrantzitsuenak bonbardatuko. Oker zeuden. 1687ko irailaren 26an bonba veneziarrek eraikina leherrarazi zuten.

1806an Thomas Bruce Elginen egoera tamalgarrira ikusita, oraindik osorik zeuden marmolezko eskultura eta erliebeak "salbatzea" eta Ingalaterrara eramatea erabaki zuen. 1939az geroztik, Londresko British Museumen daude ikusgai eta



1687AN VENEZIARREK PARTENOIA LEHERRARAZI ZUTEN. HANDIK 200 URTERA, ESPOLIAZIOAK ARE GEHIAGO SUNTSITU ZUEN TENPLUA.

"Elginen marmolak" esaten zaie haren omenez. Lord Elginen fedea onez jokatu zuela eta nagusikeria kultural eta moral kolonialista berak asmatu ez zuela onartuta, hau da, juzku anakronikoak saihestuta ere, Partenoiko eskulturekin egindakoa espoliazioa izan zela inork gutxi jartzen du zalantzan.

Horietako bat da British Museumeko zuzendari Hartwig Fischer. Greziako Gobernuak eta hainbat eta hainbat eragilek

artelanak jatorrira itzultzeko egindako enagarren eskaerari erantzunez, zera esan zuen iaz: "Marmolak testuinguru berri batean egotea aukera bat da, sormen-ekintza bat". Partenoiko Eskulturak Bateratzeko Nazioarteko Elkarteko presidente George Vardasek berehala erantzun zion: "Benetan, zer du sormenetik tenplu bat suntsitzeak eta herrialde baten Antzinaroko historiaren oinarriak arpilatzeak? ●"



Paleolitoko grabatuak Tarragonan

Font Major kobazuloa (Tarragona, Katalunia) 1853an aurkitu zuten eta urte asko dira bertan arkeologoak lanean ari direla. Iazko urriaren 30ean, ekaitz bortitz batek inguru haietan uholdeak eragin ondoren, Rovira i Virgili unibertsitateko Josep María Vergès ordurarte esploratu gabeko eremu batean sartu zen, eta duela 15.000 urte inguruko 100dik gora grabaturekin egin zuen

topo, orain arte Katalunian aurkitu diren zaharrenak. Dagoeneko hasi dira kobazuloaren zati hori 3D teknologia erabiliz eskaneatzen eta, ondoren, pieza bakoitzaren bereizmen handiko irudiak egiten hasiko dira. Horri esker "Kataluniako arkeologiaren historian mugarritzat" jo dutena behar bezala aztertzeak aukera izango dute, Madeleine aldiko grabatu sorta kaltetu gabe. ●